

URIARTE TA IZA'tar

KEPA AITA



Uriarte ta iza'tar Kepa aita, frantzisko'tar euskaldun abertzalea, gudarien kapellau izana, lur santutik igon dau aitaren etxera, betiko Jerusalem'era.

Lur Santuan

Urte batzuk dirala, 1980n. urtean, Lur Santura oster bat egiteko aukerea izan neban. Ara joateko erabagia artu eta laster esan eusten an egozan Frantziskotar euskaldunak agurtzeko, aitzu barik, batez be Artaraz aita eta Uriarte aita ikertzeko bidea eskiñi eusten eta nik bide ori artu neban. Orduan Arratia'gaz lotura berezia neukan euki be, bertan Zeanuri erri maitagarrian amar urte igaro ondoren, neure biotza-
ren zati on bat neukalako.

Esan eta egin. Naizta gure iker-aldiak astiz ondo neurtuak izan, Belen'era eldu gintzazanean, antxe aurkitu neban Aita Kepa Uriarte. Segundo batzuk baiño ez nebazan izan beragaz berba egiteko, *baíña* une baten auxe esan eustan: Itxaron egístazu apur baten. Bera barrura joan eta an zerbaít artu eta barriro etorri zan. Nire eskuetan agurtzaren garauak ezarri ondoren esan eustan: Artu egizu au neure gomutagarritzat. Orio-mendiko landaren garauetatik artutako azurraz egindakoa da. "Eskerrik beroenak emon ondoren, agurtu neban biotzez Uriarte Lekaíde eus-

kalduna eta ez dot ezer geiago jakin, bere eriotzea dala-ta Uberuaga'tar Ander aitak DEIA'n idatzi dauan idazkia irakurri arte.

Ezin itzi nik ezelan be aldizkari onetan bere gomutaz zerbait idaztea eta nire adiskide dan Uberuaga'tar Ander aitari neure esker ona agertu barik.

Jakituna ta laguntzaillea

Ander Aitak misilen zaratea gogoratzen dausku. Izan be Israel'en aspaldikoa dogu guda-giroa, orduan be beti inguratzen ginduezan guda-burdiak. Orain, Irak'eko guda amaitu dan ezker, laster eratuko dala uste dogu bake-ekintza eta ondoren ona opa dautsagu ekintza orreri, Jaunaren Erriak bizitza barria izan dagian eta an diran Kristo'ren gomutaki bizi ta beroen iraupen ziurra ta ikertzeko era ona izan dagien.

Uriarte aitak "buru otza ta biotz beroa" eukazala diño Ander'ek, eta nik asko ezagutu ez arren, olako zerbait geratu zan berari buruz nire barruan be. Ara doazen bidelaríai laguntzen 52 urte igaroteko, biotz beroa bear da, benetan.

Aita Uriarte'k ez ei eban bere euskerea galdu eta gaiñera gaztelera, italiera, frantzer, anglandera, doítxera ta eberkera ikasi ei ebazan eta orrez gaiñera Lur Santuan egin diran arkeologjiko billaketa lanetan eguneratuta bizi Euskalerrian jazoten diranen barriak be egunero artzen dauzala.

Mundu guztian

Zenbat euskaldun munduko alde guztietan, batzuk fedearen laguntzan, beste batzuk lanean, beste batzuk errigintzan! Frutua ugari emoten eta zabal-tzen dau gure erriak mundu osoan. Gauza pozgarria guztiontzat.

OLAZAR'tar MARTIN'ek